



## GATSBY HANDIA

Francis Scott Fitzgerald

Liburu honek beti erakarri nau modu berezi batez. Gaztelera irakurri nuen orain dela urte asko, ingelesez ere bai (informalki, hiztegiak abusatu gabe), zinemara eramandako bertsio on bat ere ikusi nuen, non Gatsbyren papera Di Capriok antzezten zuen, eta gainera, pertsonaia ezin zekioken hobeto egokitu; are gehiago, orain, euskarazko bertsioa irakurri ahala, ezinezkoa egin zait Gatsby beste era batean irudikatzea, Di Caprio

Gatsbyrena egiten ez bazen.

Euskarari buruzko bertsioari dagokionez, pasadizo bat. Nik Igela bilduman ateratako ale guztiak dauzkat, 1. aletik 57.enera (orain arte ez dut uste liburu gehiagorik plazaratu dutenik). Baina 3. alea, hau da, Gatsby Handia, urte luzeetan agortuta egon zen eta ezinezkoa zen dendetan topatzea (ez nago ziur, baina Igela bildumako Gatsby Handia orain dela urte asko irakurri nuela uste dut, Liburutegi publiko batean mailegatuta-edo, guztiz ziur ez banago ere). Beraz, aspalditik etsita nengoen noizbait eskuratuko ahal izango nuen, eta galdutzat emanda neukan bilduma osatzeko falta zitzaidan ale bakarra; halako batean, ordea, eta kasualitate hutsez, Interneten irakurri nuen liburua berriz argitaratuta egon zitekeela, eta dendara joan nintzenean... beste ustekabe bat! Liburua duela bi urte-edo berrargitaratua zutela esan baitzidan saltzaileak, eta ni ezta enteratu ere, eta bien bitartean, ni hortxe, penaz begiratzen beti 2. alearen (Alienista, Machado de Asis) eta 4. alearen (Eskuz landutako hilkutxak, Truman Capote) arteko hutsuneari.

Bueno, hori pasadizoei dagokienez. Baina, kontua hau da: zergatik egiten zait horren erakargarria eleberri hau? Ez pentsa galdera honi erantzutera beharturik sentitzen naizenik, gauza asko maite baititugu eta ez da beharrezkoa jakitea beti zergatia; hala eta guztiz ere, jakin nahi nuke liburu honek zer dela-eta harrapatu nauen horren sakon lehen orritik bertatik.

Gatsby hitz batekin definitzen saiatu naiz, eta kontua da hitz asko etorri zaizkidala burura; bestalde, kontua ez datza bakarrik Gatsby definitzean, baizik eta hark sortu duen guztia eta, bide batez, berarekin elkarreragina duten pertsonaia guztiak ere definitzean edo kontuan hartzean. Azkenik, hitz bat ez baina hitz asko etorri zaizkit burura, arrapaladan etorri ere; izan ere, hitz bakar batekin motz gelditzen nintzelako sentrazioa neukan. Beraz, hauek dira pertsonaia honekin eta inguratzen zaion guztiarekin identifikatzen lagundu didaten hitzak: gainbehera, desengainua, etsipena, hipokrisia, zurikeria, dekadentzia, (gezurrezko) glamourra, bakardadea, azaluskeria, gau-txori giroa, irrealtasuna, iheskortasuna, galkortasuna edo iragankortasuna; giro gezurti, zimel eta urruna; nahaspila, neurrigabekeria, desordena, ameskeria, alkohola...

Ikusten denez, hitz horiek guztiak, oro har, negatiboak dira, hartan guztian amarrugabe eta aratza izan daitekeen zerbait dirdira egiten egon, badago ere. Agian, Gatsbyrekin eta Gatsbyren munduarekin gertatzen da harribitxiekin gertatzen den gauza bera: harribitxi-dendako erakusleihen batean dirdiratsu agertu arte, harri preziatu horiek lehenik lurretik erauzi behar dira, eta gero maisutasun eta bokazio handiz landu (harribitxien erruz gertatutako heriotzak, gerrak, giza esplotazioak, e.a. kontuan hartu gabe).

Hala ere, ikusi duzue, gizakiaren alderdi bereziki positiboak gogora ekartzen duten hitzak ez dira goian zerrendatu ditudanak. Nolanahi ere, Gatsby hor dago; giro horren erdian “haren” egia hor dago, eta haren egia apala hau da: zer izan zen, zer egin behar izan zuen aurrera egiteko, “norbait” ez izateagatik jasandako despita, arropa militarrez jantzita trenez egindako bidaia luzea kaleko jantziak erosteko sosik ez zeukalako...

Ez dakit, eleberri osoak amets amerikarra du ardatz, amets amerikarraren aurpegi irribarretsua erakusten digu, baina gero badago beste aurpegi bat, mingotsagoa, ustezko zoriontasun horretatik gero eta gehiago aldentzen dena, eta bertan Gatsby (egia esan, Jay edo Jimmy Gatz ditu benetako izen-abizenak), jatorri apaleko gizaseme bat, “arrakasta” kosta ahala kosta erdietsi eta, batez ere, gaztetako maitasun zaharra berreskuratzeko “gurutzadari” erabat emana dabilena, nahiz eta horretarako beharrezkoa izan espejismo bat eratzea, zeina, gizasemez zenbat eta gehiago populatu, orduan eta handiagoa baita haren bakardadea eta... porrota.

Gatsbyren atzean dagoena hori dela uste dut: arrakastaren beste aurpegia, amets amerikarraren alderdi iluna, zeina azaltzen baitzaigu azalezko harremanetan, alkoholean eta beste gehiegikeria batzuetan murgilduta. Azkenean, batek sentsazioa du Gatsbyk eternitatez harago esaten digula: “Ni horrelakoa naiz, adiskide, ezin perfektuak izan...”.

Obran beste pertsonaia interesgarri bat, nola ez, Nick Carraway da, protagonista nabarmena eta eleberrian kontatzen diren gertaeren kronista, hasi eta buka.

Liburuaren 128. orrialdean oso argigarriak gerta daitezkeen hitz batzuk azaltzen dira errealitateari buruz (hura den bezala eta Gatsbyk antzematen duen bezala). Nick Carrawayk berak esaten dio Gatsbyri:

–Nik ez nioke gehiegi eskatuko –ausartu nintzen–. Iragana ezin da errepikatu.

–Iragana ezin dela errepikatu? –oihu egin zuen (Gatsbyk) sinetsi ezinik–. Horixe errepika daitekeela.

Azken finean, horixe da Gatsby bilatzen duena: iragana berriro gertatzea. Nick gizaseme ona da, agian narrazioan agertzen diren protagonistarik zentzuzkoena eta jatorrena da, nahiz eta bera ere bere garaiko semea izan. Zein garaitakoa? Bada, 20ko hamarkadakoa, belaunaldi bat oso-oso azkar bizi zenean jazzaren erritmo bizian.

Nickek Gatsby zenbat eta hobeto ezagutu, orduan eta begikotasun eta adiskidetasun handiagoa sentitzen du harenganako. Eta Gatsbyren jarrera okerra dela iruditzen bazaio ere, ez du bi aldiz pentsatuko Gatsbyri laguntzeko haren iragana berreskuratzen, errepikatzen, gertaeren norabidea aldatzen, “Zelestinarena” egin beharko badu ere, bat ere kostatzen ez zaiona, kontuan hartuta haren lehengusina –Daisy– ezkondata dagoela supremazista zuri, ergel, emakumezale eta alkoholiko batekin (belarrietaraino aberatsa, hori bai).

Neurri batean, Gatsbyk Arthur Millerren “Saltzaile baten heriotza” antzerki-laneko protagonista (Willy) ekarri dit gogora. Pertsonaia oso

desberdinak badira ere, badute zerbait komunean: beren inguruan eratzen duten gezur-sarea gorabehera, enpatia sortzeko gauza dira, eta gainera, biek bizi dituzte amets amerikarraren ondorioak modu nahiko dramatikoan. Aberatsak izateko irrika hori, pertsonak itsutu eta zorientasunera daraman benetako bidetik (benetako biderik balego) apartatzen dituen...

Beharbada, Di Caprio ikusten dugunean lakuaz bestaldeko etxeari begira, non Daisy bizi den, beharbada orduan konturatzen gara Di Capriok iltze goriari bezala heltzen dion sentimendu horretaz, azken finean... sentimendu hori zer da denok aurkitu behar dugun egia baino, gure bizitzei zentzu apur bat emango badiogu, jai hutsalez harago, alkoholaz eta gehiegikeriez eta bizitzako azalezko alderdiez harago (baita aberastasunez harago ere)?

Bestalde, balizko “egia” hori ere interpreta genezake obsesio gaixoti eta hutsal gisa, Amerikako gizartearen “arrakastarekiko irrikarekin” lotua. Izan ere, Daisyk berak, maitaleekin ageriko harremanak dituen senar batekin bizi arren, alkoholiko eta arrazista den senar batekin bizi arren... ez du harekiko harremana hausten, ez du Gatsbyren besoetara jauzten (eleberriaren une honetan jada gauza jakina da Gatsbyren aberastasunak jatorri ilunak dituela...).

Gizarte baten erretratua dela esango nuke, eta susmoa dut gizateriak asko aldatu beharko lukeela, erretratu horretan nolabait islatuta ez sentitzeko eguna noizbait iritsiko bada.

Eta Daysik –Gatsbyren begietan– ondo errepresenta dezake amets amerikarraren frustrazioa, hau da –eta sinpleki esanda–: diruz erosi ezin dezakegun guztia, oso aberatsak izan arren (iragana, esaterako, ezin dugu erosi, beste era batean hura berrosatzeko).

Obra osoan zehar arnasten den “glamour” dekadente hori eleberriaren liluraren parte bananduezina dela ere esango nuke.

Erne egon “garrantzirik gabekotzat” jotzen ditudan pertsonaiekin, horiek ere, nobelan unetxo batez bakarrik azaldu arren, zinez esanguratsuak diren egoeren aurrean jar gaitzakete eta. Adibidez, Klipspringer, ia eleberriaren

bukaeran azaltzen den pertsonaia, Gatsbyren etxean ahaztuta utzi omen zituen oinetako batzuez galdezka, ezin dramatikoagoa den une batean.

Azkenik, eta obraren itzultzaileari dagokionez, ez dut uste aurkezpen beharrik daukanik: Xabier Olarra Lizaso, euskararen historian izan den itzultzaile onenetako bat eta XX. mendeko eta daramagun XXI. mende honetako itzultzaile onena, dudarik gabe. Ez dakit euskal gizartea noraino ohardun den harekin hartuta daukan zor itzulezinen tamainaz. Zenbaitetan, neure buruari galde egiten diot –zalantzaz beteta– nork hartuko duen Xabier Olarraren lekukoa, bera faltako zaigun egunean (ez ahal da horrelakorik sekula gertatuko!). Badakit oso itzultzaile onak dauzkagula, eta gaur egungo harrobiak oso itxura ona duela, benetan ona, baina Olarrak badu zerbait berezia, eta hain zuzen, zeinek ahal izango liokeen James Joyceren Ulises obra euskaratzeko lan titanikoari heldu, Olarrak berak baizik...?

Hementxe duzue pertsonaien zerrenda, lagungarri gertatuko bailitzan:

West Egg	Gatsby eta Nick bizi diren hiriaren izena, Long Island aldean (New York), antza
Nick Carraway	Narratzailea, Daisyren lehengusua eta Gatsbyren auzokoa
Daisy	Tom Buchanan-en emaztea, Nick Carrawayren lehengusina eta Gatsbyren gaztetako maitasuna
Tom Buchanan	Daisyren senarra, familia onekoa eta oso aberatsa
Jordan Baker, Baker andereñoa	Daysiren eta Tomen laguna eta golf jokalaria; Nick Carramayk gorteiatua
Jay Gatsby	Protagonista nagusia
T.J. Eckelburg doktorea	Sendagilea (garrantzirik gabeko pertsonaia)
George B. Wilson	Garaje baten jabea eta Mirtle Wilsonen senarra
Mirtle Wilson	George B. Wilsonen emaztea eta Tom Buchananen maitalea
Catherine	Mirtle Wilsonen ahizpa
Chester Mackee jauna	Argazkilaria eta Tomek eta Mirtlek hirian duten etxe ondoko bizilagunak (garrantzirik gabeko pertsonaia)
McKee andrea	Chester Mackeeren emaztea (garrantzirik gabeko pertsonaia)
Lucille	Jordan Bakerren laguna (garrantzirik gabeko pertsonaia)
Sigourney Howard	Jordan Bakerren izeba (garrantzirik gabeko pertsonaia)

Wolfsheimen	Gabtsbyren laguna, gizon asaldagarria, Gatsbyren negozio ilunen atzean egon daitekeena...
James Gatz	Gatsbyren benetako izena
Dan Cody	Milioiduna, Gatsbyren garai bateko mentorea...
Ella Kaye	Kazetaria eta Dan Codyren hiltzailea
Sloane jauna	Tom Buchananen laguna
Pammy	Tom eta Daisyren alabatxo
Michaelis	George B. Wilsonen auzolaguna
Slage	Azken orduko telefono-dei baten egilea (garrantzirik gabeko pertsonaia)
C. Gatz	Gatsbyren aita
Jimmy	Gatsbyren aitak erabiltzen zuen izena Gatsbyri deitzeko
Klipspringer	Garrantzirik gabeko pertsonaia